



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Egun on, señoras y señores
parlamentarios. Hizkuntzen
alternantzia Eusko Legebiltzarrean**

Claudia María Torralba Rubinos

19-26 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.02>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Egun on, señoras y señores parlamentarios. Hizkuntzen alternantzia Eusko Legebiltzarrean

Claudia María Torralba-Rubinos

UPV/EHU

claudiamaria.torralba@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honek euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntzen alternantzia du aztergai, gutxi ikertutako testuinguru batean: Eusko Legebiltzarreko interbentzioetan. Azterketa egiteko, 15 hizlariaren 30 ahozko ekoizpen aztertu dira, hizkuntza nolako maiztasunarekin aldatzen den eta aldaketa hori mintzaldiaren zein unetan eta zertarako gertatzen den jakiteko. Emaitzek erakutsi dutenez, fenomenoak ohikoak da aztertutako parlamentarien artean, eta batez ere diskurtsoen erdialdean gertatzen da. Gainera, horren atzean egon daitezkeen zazpi funtzio pragmatiko identifikatu dira.

Hitz gakoak: elebitasuna, hizkuntzen alternantzia, euskara, gaztelania) Eusko Legebiltzarra

Abstract

This article addresses the language switching between Basque and Spanish in a little studied context: the interventions at the Basque Parliament. A corpus of 30 interventions from 15 speakers has been analysed in order to determine how often, where and what for is language switching used. The results show that this is a common phenomenon among the analysed Basque politicians, particularly in the central part of the text. In addition, seven pragmatic functions that are potentially linked to the parliamentary interventions have also been detected.

Keywords: bilingualism, language switching, Basque, Spanish, Basque Parliament

1. Sarrera eta motibazioa

Euskal gizartea gero eta anitzagoa –eta eleanitzagoa– den honetan, inor ez da harrizten euskarak hezkuntza-arloan, administrazioan eta bestelako erabilera-eremuetan izan beharko lukeen presentziaren inguruko titularrak irakurtzean (“Zupiria: Espainiako sistema judiziala huts nabarmena egiten ari da hizkuntza aniztasuna zaintzeko orduan”¹; “Espainiatik eta Frantziatik euskararen normalizazioa sustatzen duten arauen kontrako ebazpenak iritsi dira”², etab.).

EAEra begira jarrita, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (2022) eman ditu euskararen ezagutzari eta euskararekiko iritzi eta jarrerari buruzko azken datuak, iazko abenduan argitaratutako “Euskarari buruzko iritziak” azterlanean. Euskara lehentasunez zein eremutan sustatu beharko litzatekeen galdetuta, hau erantzun zuten inkestatutako herritarrek: ikastetxeak (8,6 puntu 10etik), administrazio publikoa (7,8 puntu 10etik), ekintza kulturalak (7,4 puntu 10etik), hedabideak (7,4 puntu 10etik) eta osasun-zentroak (7,3 puntu 10etik).

Testuinguru horretan kokatu behar dugu azterlan honen garrantzia, lehentasunezko bost eremu horietako bi uztartzen baitituzte aztergai dauzkagun Eusko Legebiltzarreko interbentzioek. Zergatik, bada? Batetik, Legebiltzarra arau propioak dituen administrazio publiko berezia delako (Lozano, 2006) eta, bestetik, Legebiltzarrean ematen diren hitzaldiak hedabideen bitartez zabaltzen direlako. Horretaz kontziente, aztergai dugun testu-generoaren berezitasunetako bat da, hain zuzen, hitzaldiek hartzaile bikoitza dutela: Legebiltzarrean fisikoki presente dauden entzuleak eta hedabideen bitartez esandakoaren berri jasoko duten hautesle potentzialak (Van Dijk eta Rodrigo-Mendizábal, 1999). Testuinguru horretan, beraz,

¹ <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoak/9088096/bingen-zupiria-eusko-jaurlaritzako-bozeramaileari-elkarrizketa-2023ko-urtarrilaren-26an-radio-euskadin/>

² <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/osoak/9077896/espainiatik-eta-frantziatik-euskararen-normalizazioa-sustatzen-duten-arauen-kontrako-ebazpenak-iritsi-dirat/>

interesgarria da euskal politikariek Eusko Legebiltzarrean euskaraz egiten dituzten hitzaldiak aztertzea, euskara noiz eta nola erabiltzen duten jakiteko.

Puntu honetara iritsita, garrantzitsua da aipatzea euskara edo gaztelania hutsean egindako diskurtsoez gain, euskara eta gaztelania tartekatzen dituzten diskurtso elebidunak ere ohikoak direla Eusko Legebiltzarrean. Hala ere, hizkuntza biak txandakatzea ez da testuinguru horretan gertatzen den fenomeno isolatua: gizartean gertatzen denaren isla da, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duten komunitateetan oso ohikoak baitira diskurtso elebidun edo eleaniztunak. Hizkuntzalaritzaren arloan, hizkuntzen alternantzia edo kode-alternantzia deritza hizlari bakarraren diskurtsoan bi hizkuntzetako perpausak edo perpaus-zatiak erabiltzeari (Poplack, 1980).

Bada, administrazio publikoetan egin eta hedabideen bitartez zabaltzen diren diskurtso elebidunak aztertzea biziki interesgarria da, gizarteak ispiluak eta erreferente linguistikoak bilatzen dituelako diskurtso horietan. Nahita edo nahi gabe, euskararen eta gaztelaniaren erabilera jakin bat egiten dute lider politikoek, eta gizartearentzako eredu bilakatzen dira. Hortaz, euskara eta gaztelania txandakatzen dituztenean hizkuntza bakoitza noiz eta zertarako erabiltzen duten analizatzeak aukeratutako hizkuntzaren bidez gizarteari ematen zaizkion mezu inplizituak aztertzeko aukera ere ematen du (Irazabalbeitia, 2017).

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Hizkuntzen alternantziaren gaineko ikerketa ez da berria euskal komunitatean, eta guk aztergai dugun euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia hainbat ikuspegitatik aztertua izan da. Ikuspegi sintaktikotik, adibidez, adina kontuan hartuta aztertu izan dute adituek, zehazki, helduetan (Etxebarria, 2004; Manterola eta Almgren, 2015), gazteetan (Etxabe, 2005; Ibarra, 2011 eta 2013; Perez-Gaztelu eta Zulaika, 2014; Perez-Gaztelu, 2017), umeetan (Ezeizabarrena eta Manterola, 2004; Ezeizabarrena eta Munarriz, 2012) eta belaunaldi artean (Igartzabal, 2014).

Ikuspegi pragmatikotik ere heldu izan zaio gaiari, adin eta jatorri ezberdinetako hiztunekin. Adibidez, Muñoak (1997) Donostiako gazte eta helduen hizketak izan zituen aztergai, Ibarra (2014) Nafarroako gazteenak eta Lanttok (2015) Bilbo Handiko hiztunenak, adina zehaztu gabe.

Beste mota batzuetako lanak ere egin izan dira euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia aztertzeko. Adibidez, arestian aipatutako ikuspegi pragmatikotik abiatuta eta datu-bilketa berririk egin gabe, Camposek (2017) kode-alternantziaren funtzio pragmatikoen izendapenak bateratzeko proposamena egin zuen.

Horretarako, lehenik, ikuspegi pragmatikotik mugarri diren zenbait ikerketatan identifikatutako 13 funtzio pragmatikoren izendapenak bateratu zituen. Gero, ordura arte Muñoak (1997), Ibarra (2011, 2013 eta 2014) eta Lanttok (2015) euskara-gaztelania konbinazioan identifikatutako funtzioak izendapen horien arabera sailkatu zituen, eta guztira 6 funtzio pragmatiko etorri ziren bat nazioarteko ikerketetan aurkitutakoekin (konnotazio bat gehitzea, parentesi bat txertatzea, aipu bat sartzea, enfasia ematea, hutsune lexikalak betetzea eta kulturalki markatutako formak mantentzea). Hala ere, sailkapen horretatik kanpo geratu ziren euskara-gaztelania konbinazioan aurkitutako beste 3 funtzio pragmatiko hauek: elkarrizketaren garapena negoziatzea, errepikatzea eta beste hizkuntza batean izandako pentsamendua erreproduzitzea.

Funtzio pragmatikoen ildoarekin jarraituta, Etxabek (2005) beste bi funtzio zituen aurretik identifikatuta Getariako gazteen solasaldietan: esapideak sartzea eta informaltasuna adieraztea. Gauzak horrela, guztira, 11 funtzio pragmatiko identifikatu izan dira orain arteko azterketetan: (1) konnotazio bat gehitzea, (2) parentesi bat txertatzea, (3) aipu bat sartzea, (4) enfasia ematea, (5) hutsune lexikalak betetzea, (6) kulturalki markatutako formak mantentzea, (7) elkarrizketaren garapena negoziatzea, (8) errepikatzea, (9) beste hizkuntza batean izandako pentsamendua erreproduzitzea, (10) esapideak sartzea eta (11) informaltasuna adieraztea.

Aipatu beharreko beste ekarpen garrantzitsu bat Uriak, Alegriak eta Corralek (2017) egindakoa da. Izan ere, hizkuntzalaritza konputazionalaz baliatu ziren Twitterreko 424 erabiltzailearen 1765 txiotako hizkuntzen alternantzia aztertzeko. Mugarri da, hain zuzen, lehen aldiz baliatu zutelako corpus masibo bat euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia aztertzeko.

Testu-generoari erreparatuta, orain arte aipatutako ikerketa gehienak ahozko solasaldi informal eta espontaneoetan oinarritutakoak dira. Salbuespen dira Perez-Gazteluk eta Zulaikak (2014) eta Perez-Gazteluk (2017), batetik, eta Uriak, Alegriak eta Corralek (2017), bestetik, egindako lanak, horietan sare sozialetan idatzitako mezuak izan baitzituzten aztergai.

Ikusten denez, ez dira gutxi ahozko solasaldi informaletako hizkuntzen alternantzia aztertu duten ikerketak, eta bidea hasita dago, halaber, sare sozialen bidez zabaltzen diren mezuetan, corpus txiki zein masiboak erabilia. Nolanahi ere, orain arte, guk dakigula, hizkuntzen alternantzia hori ez da aztertu testuinguru formaletan, nahiz eta Aldekoak (2020) adierazi bezala, kongresu zientifikoetan, biltzarretan eta testuinguru akademikoetan ohikoa den hizkuntzak txandakatzea.

Gauzak horrela, aztertu gabeko esparru horretan kokatzen den testu-genero bat du lan honek aztergai: Legebiltzarreko interbentzioak. Testu-genero berezia da, gainera, planifikazio-maila handia izaten duten hitzaldiak direlako (Fuentes-Rodríguez eta Alcaide-Lara, 2002). Horregatik, interesgarria izango da orain arteko emaitzak espontaneotasun askoz ere txikiagoa duen corpus bateko emaitzekin alderatzea. Horretarako, aurretik beste egile batzuek egin izan duten bezala, hizkuntzen alternantziaren atzean dauden funtzio diskurtsiboetan jarriko da arreta.

Xede hori buruan, Legebiltzarrean egindako euskarazko interbentzioen corpus bat bildu eta aztertu da, bi helbururekin: batetik, corpusean hizkuntzen alternantzia zer-nolako maiztasunarekin eta diskurtsoaren zein ataletan agertzen den ikustea eta, bestetik, hizkuntzen alternantziak testuinguru horretan dituen funtzio pragmatikoetarako lehen hurbilpen bat egitea.

3. Ikerketaren muina

3.1 Corpusaren deskribapena

Azterketa hau egiteko baliatuko dugun corpora Eusko Legebiltzarrean euskaraz egindako 30 interbentzioen transkribapenez osatuta dago. Alde batera utzi dira gaztelaniazkoak, testu horietan ez baitago euskararen presentziarik. Laginak 2019 eta 2021 artean bildu ziren, eta Eusko Legebiltzarrean webgunean³ eskuragarri dauden bideoetatik transkribatu. Guztira, 15 hizlarik ekoizitako testuak dira.

3.2 Metodologia

Lehenik eta behin, hizkuntzen alternantziaren maiztasuna aztertuko da. Horretarako, corpuseko testuetan hizkuntza zenbat aldiz aldatzen den zenbatuko da. Hori eginda, posible izango da, beharbada, hizlariaren eta hizkuntzen alternantziaren maiztasunaren arteko korrelazio bat ezartzea.

Bigarrenik, alternantzia hori testuaren zein zatitan (hasieran, erdialdean edo amaieran) agertzen den zehaztuko da, joera orokorrik dagoen ikusteko.

Hirugarrenik, hizkuntza aldatzeko arrazoi pragmatikoak zein izan daitezkeen analizatuko da. Horretarako, orain arte euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia duten ahozko solasaldi informaletan identifikatutako funtzioak bilatuko ditugu gure corpusean, horietatik zenbat agertzen diren ikusteko. Zehazki, hauek dira erreferentzia gisa hartuko ditugun funtzioak: (1) konnotazio bat gehitzea, (2) parentesi bat txertatzea, (3) aipu bat sartzea, (4) enfasia ematea, (5) hutsune lexikalak betetzea, (6) kulturalki markatutako formak mantentzea, (7) elkarrizketaren

³ https://www.legebiltzarra.eus/ultimos/e_ultimos_pleno.html

garapena negoziatzea, (8) errepikatzea, (9) beste hizkuntza batean izandako pentsamendua erreproduzitzea, (10) esapideak sartzea eta (11) informaltasuna adieraztea.

Azkenik, Legebiltzarreko interbentzioen testuinguru formalean hizkuntzen alternantziak izan ditzakeen bestelako funtzio pragmatiko bereizgarri batzuk bilatuko dira.

3.3 Emaitzak

1. taula. Hizkuntzen alternantziaren maiztasuna eta txandakatzearen kokapena diskurtsoan, hizlariaren eta interbentzioaren arabera.

Hizlaria	Interbentzioak	Maiztasuna	Guztira	Hasieran	Erdian	Amaieran
1. hizlaria	2. interbentzioa	8	8	-	8	-
2. hizlaria	4. interbentzioa	6	6	-	6	-
3. hizlaria	1. interbentzioa	-	3	-	-	-
	3. interbentzioa	-		-	-	-
	5. interbentzioa	1		-	-	1
	6. interbentzioa	-		-	-	-
	12. interbentzioa	-		-	-	-
	19. interbentzioa	-		-	-	-
	26. interbentzioa	2		-	-	2
	28. interbentzioa	-		-	-	-
4. hizlaria	7. interbentzioa	16	46	-	15	1
	11. interbentzioa	10		1	8	1
	22. interbentzioa	20		-	20	-
5. hizlaria	8. interbentzioa	6	6	-	8	-
6. hizlaria	10. interbentzioa	9	15	1	8	-
	25. interbentzioa	6		-	5	1
7. hizlaria	13. interbentzioa	4	4	-	4	-
8. hizlaria	14. interbentzioa	8	20	-	8	-
	16. interbentzioa	12		-	12	-
9. hizlaria	15. interbentzioa	2	4	-	2	-
	27. interbentzioa	2		-	1	-
10. hizlaria	20. interbentzioa	4	4	-	3	1
11. hizlaria	21. interbentzioa	2	2	-	2	-
12. hizlaria	23. interbentzioa	4	4	-	4	-
13. hizlaria	24. interbentzioa	6	6	-	6	-
14. hizlaria	29. interbentzioa	2	5	-	1	1
	30. interbentzioa	3		1	2	1
15. hizlaria	17. interbentzioa	-	0			
	18. interbentzioa	-				
Guztira			133	3	125	7

Lagin kopurua mugatua bada ere, taulan ikusten da hizkuntzen alternantzia oso maiz egiten dela (133 aldiz guztira, eta 15 hizlarietik 14k egin dute). Gainera, agerikoa da hizlari batzuek hizkuntzen alternantziarako joera handiagoa daukatela beste batzuek baino. Horrek iradokitzen du hizkuntzen alternantzia hizlariaren ezaugarri pertsonalei lotuta egon daitekeen fenomeno linguistikoa dela.

Hizkuntzen alternantzia duten 22 diskurtsoak aldaketa non gertatzen den ikusteko aztertu dira, eta bi datu interesgarri ateratu dira analisi horretatik: batetik, alternantzia ia guztiak (125/133tik) egiten dira testuaren erdigunean, eta bestetik, ia testu guztiak (20/22tik) hasi eta bukatzen dira euskaraz. Bi salbuespen daude: 5. eta 10. interbentzioak (gaztelaniaz bukatu eta hasten dira, hurrenez hurren).

Edonola ere, emaitzek iradokitzen dute hizlari batzuek euskaraz hasi eta bukatzeko saiakera kontzientea egiten dutela. Izan ere, eta arestian ikusi dugun bezala, testu bakarrean egiten da agurra gaztelaniaz (10. interbentzioa), eta 22 hitzalditik 7tan gaztelaniatik euskarara aldatzen da azken hitzak esateko (amaierako aldaketa). Horrenbestez, badirudi azken hitzak euskaraz esatea izan daitekeela Eusko Legebiltzarreko hizkuntzen alternantziak daukan funtzio pragmatiko bereizgarrietako bat. Hona hemen adibide bat:

- Hitzaldia euskaraz amaitzea

(1) son / los hijos / y las hijas / los nietos / y las nietas / de gudarís / de nacionalistas / abertzales / de republicanos / de aquellos / que masacraron / como en Sartaguda / de aquellas / que no tuvieron / otro remedio / que seguir viviendo / humilladas / con miedo / solas / de aquellas que supieron organizarse / dentro / y fuera de la cárcel / aquellas que empezaron ya entonces / con la cultura de las visitas / a los presos / 90 años después / aquí seguimos / *guzti hoiei / da / gaurko / gure omenaldia / euren balioei eutsi / eta eurek hasitako bidearekin jarraitzea da / gaur / egin dezakegun / omenaldirik onena / eskerrik asko*

Hala ere, taulan argi ikusten da alternantzia gehienak testuen erdialdean gertatzen direla, eta, gainera, aldea oso handia dela. Horrek pentsarazten du, hortaz, hizkuntzen alternantziaren gainerako funtzio pragmatikoak argumentazioaren lotuta egon daitezkeela.

Funtzio pragmatikoei helduta, lehenago ere euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntzen alternantzia azaltzeko identifikatu diren 11 funtzio pragmatikoak (konnotazio bat gehitzea, parentesi bat txertatzea, aipu bat sartzea, enfasia ematea, hutsune lexikalak betetzea, kulturalki markatutako formak mantentzea, elkarrizketaren garapena negoziatzea, errepikatzea, beste hizkuntza batean izandako pentsamendua erreproduzitzea, esapideak sartzea eta informaltasuna adieraztea) gure corpusean bilatu dira, eta 5 hauek aurkitu: aipu bat sartzea, hutsune lexikalak betetzea, kulturalki markatutako formak mantentzea, errepikatzea eta esapideak sartzea. Gainerakoak ez dira aurkitu. Edonola ere, beste funtzio pragmatiko potentzial batzuk identifikatu dira corpusaren azterketan, eta funtzio berri horietan jarriko dugu arreta:

- Aurkari politikoaren irudia gaztelaniaren bitartez eraikitzea (endotaldea, gu, euskaraz egiten dugunak, eta exotaldea, zuek, gaztelaniaz egiten duzuenak, kontrajartzea)

(2) argi geratu da gizarte-zerbitzuen euskal sistemak duen lekua Iñigo Urkullu / Urkulluren Gobernuaren lehenaren artean / baina momentu batez bueltatu gaitezen gure erkidegoan dugun erramintari / gizarte-zerbitzuen euskal sistema garatzeko / funtsa / alegia / uste dut lehen argi eta garbi geratu dela bere zuzkidura ez dela nahikoa / baina zer gertatu da bere helburuarekin? / hau da / zertarako / zertarako / erabili dira dagoeneko bideratu diren larogeita hamar milioi euroekin? / Euskal Herria Bilduk bere interesa agertu zuen / eta Berdintasun / Justizia eta Gizarte Politikatako Sailari galdetu zion / ba / itzulinguruz beteriko bi orrialde / ideiarik ere ez dagoela aitortzeko / *quien ostenta la coordinación / general del Sistema Vasco de Servicios Sociales / desconoce / a día de hoy / en qué se han invertido los últimos años ma / noventa millones de euros / noventa millones de euros cuyo destino era el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales / bravo / aunque / seamos justos / el Departamento de Igualdad / Justicia y Políticas Sociales no es el único que tiene una relación / digamos / un tanto azarosa / con los fondos finalistas / procedente del fondo COVID-19 aprobado por el Gobierno del Reino de España*

- Espainiarekin edo nazioarteko erakundeekin zerikusia duten gaiei buruz gaztelaniaz hitz egitea eta euskarara aldatzea Euskal Herriari eragiten dietenei buruz hitz egiteko

(3) son herramientas / el déficit y la deuda / son herramientas / y no deben ser el objetivo principal de las políticas públicas / deben servir / para responder a los retos económicos y a los retos sociales / *oinarrizko diren printzipio hauek gurean ere guztiz aplikagarriak dira / gure ekonomiak aukerak ditu / euskal gizarteak etorkizun hobe bat izan dezake / eta horretarako politika publikoek bidea egin behar dute / jarduera publikoak tresna ekonomiko guztiak erabili behar ditu / guzti hori ahalbidetzeko*

- Gaztelaniaz hitz egin duen hizlari bati erantzutea euskarazko hitzaldi baten erdian

(4) tamalez / hori da garena / baina ez / izan / nahi / duguna / horregatik aurkeztu dugu osoko / zuzenketa / monarkiari ezetz esan / eta euskal errepublikaren alde egiteko / libre / izan / nahi / dugulako / *usted / señor Hernández / nos habla / de reconocer la historia / nosotras / le hablamos / de hacer / historia / precisamente / por respeto / a quien / a quienes dieron su vida / por esos valores / que aún siguen vigentes / y que también / compartimos / demokrazia nahi dugulako / erabakitze eskubidea / estaturik gabeko nazioek / errepublika bat sortzeko duten eskubidea / guk ere / izan nahi dugulako / gure etorkizunaren jabe izango garen euskal errepublika batean / bizi nahi dugu*

- Beste talde politiko batzuek gaztelaniaz egindako proposamenak analizatzea

(5) hala ere / gu ez gara eroriko kritika errazan / legez besteko proposamen hau berandu datorrela edo jada zentzurik ez duela esanez / dena den / gure iritziz / eztabaida interesgarria da / baina / esan dudan moduan / ez dugu uste orain gizarte bezala ditugun erronken aurrean lehentasunezkoa denik / baina / eztabaidara ekarri denez / ba gure iritzi eta ikuspegi emango dugu / *la señora Gorrotxategi nos propone su primer punto / entre otras cuestiones / que se adopten medidas necesarias para impedir que los miembros del Gobierno / en el ejercicio de su cargo / muestren vínculo alguno con una determinada confesión religiosa*

- Ideia nagusia adieraztea

(6) gogoratu behar dut ez dela neurri hauek planteatzen ditugun lehenengo aldia / izan ere / martxoaren hamaseian / apirilaren hamazazpian eta maiatzaren hamahiruan antzeko neurriak proposatu zituela Euskal Herria Bilduk / orduan / isiltasuna / edo kontrako jarrera jaso genituen bakarrik / eta bidean / tamalez / sei hilabete galdu ditugu / era berean / gaurko eztabaidara ekar ditzaket egoitzak protagonista izan dituzten portada tristeak / hau / adibidez / baina ez / gaur ez dut atzera begiratu / *Euskal Herria Bildu no sube hoy esta tribuna a buscar culpables de lo ocurrido / pero tampoco vamos a permitir que se siga mirando hacia otro lado / gaur hona ekartzen ditugun neurrien defentsa / Osasun sailburu berriaren lehen esku-hartze publikoarekin hasiko dut*

- Euskara eta gaztelania neurri berean erabiltzea

(7) Legebiltzarburu andrea / legebiltzarkideok / sailburuok / jaun-andreok / egun on / inork uste al du / munduko agintariren batek / baietz erantzun diezaiokeela galdera honi / Iriarte andrea? / munduko edozein agintarik / zailtasunak ditu / eta izango ditu / behin eta berriz ezezagun / agertzen zaigun pandemia honi behar bezala erantzuteko / erronka berriei / eta aurreikusi gabeko arazoei / aurre egin behar diegu / señora Iriarte / *trabajamos / tratando de extraer*

aprendizajes / analizando todas las prácticas internacionales / adoptando decisiones que varían / en función de la incidencia de las diversas variantes / de la misma manera que / en Alemania / Francia / Italia / Austria / Reino Unido / China / Taiwán / Corea del Sur o Nueva Zelanda / por referencias utilizadas / se adoptan decisiones que modifican las anteriores / ¿hay alguien que cree / que tiene / certezas absolutas? / no hay / certezas absolutas / y en cada reunión / profesionales / de diversas disciplinas y responsables políticos / nos preguntamos / qué podemos mejorar / y encontramos / margen de mejora / todos los días / zentzu honetan / Iriarte andrea / bai / pandemiari emandako erantzuna / ahalik eta egokiena izaten ari da / egokiena / egunetik egunera hobetzen ari garelako / eskerrik asko

4. Ondorioak

Egiatzatu da corpuseko hitzaldi gehienetan euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia maiz egiten dela, batez ere, testuaren erdialdean. Hala ere, azterketaren emaitzek erakutsi dute hizlari batzuentzat garrantzitsua izan daitekeela beren hitzaldia euskaraz hasi eta amaitzea. Hori izan daiteke, hain zuzen, Legebiltzarreko testuetan identifikatu dugun hizkuntzen alternantziaren funtzio pragmatiko bereizgarrietako bat.

Horrez gain, ahozko solasaldi informaletan identifikatutako 5 funtzio ere aurkitu dira interbentzioetan: aipu bat sartzea, hutsune lexikalak betetzea, kulturalki markatutako formak mantentzea, errepikatzea eta esapideak sartzea. Beraz, badirudi hizkuntzen alternantziarako zenbait funtzio komun daudela espontaneotasun-maila handi zein txikiko testuetan.

Dena den, aurrekarietan identifikatu diren beste 6 funtzio ez dira corpus honetan aurkitu: konnotazio bat gehitzea, parentesi bat txertatzea, enfasia ematea, elkarrizketaren garapena negoziatzea, beste hizkuntza batean izandako pentsamendua erreproduzitzea eta informaltasuna adieraztea. Pentsatzekoa da horietako batzuk testu-generoen arteko aldeei estuki lotuta egongo direla. Adibidez, logikoa dirudi Legebiltzarreko hitzaldi batean elkarrizketaren hizkuntza negoziatzeko funtzio pragmatikoa ezin aurkitzea, ez baitago, berez, elkarrizketarik. Hala ere, eta berehala ikusiko dugun bezala, azterketa sakonagoa beharko genuke funtzio pragmatiko horiek aurkitu ez izanari azalpen argudiatu bat emateko.

Aurrekarietan identifikatutako funtzio pragmatikoak alde batera utzita, hainbat funtzio berri ere identifikatu dira: (1) hitzaldia euskaraz amaitzea, (2) aurkari politikoaren irudia gaztelaniaren bitartez eraikitzea, (3) Espainiarekin edo nazioarteko erakundeekin zerikusia duten gaiei buruz gaztelaniaz hitz egitea eta euskarara aldatzea Euskal Herriari eragiten dietenei buruz hitz egiteko, (4) aurretik gaztelaniaz hitz egin duen hizlari bati erantzutea euskarazko diskurtso baten erdian, (5) beste talde politiko batzuek gaztelaniaz egindako proposamenak analizatzea, (6) ideia nagusia adieraztea eta (7) euskara eta gaztelania neurri berean erabiltzea.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Azterketa hau euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia Legebiltzarreko interbentzioetan aztertzeke lehen saiakera izan da, eta beraz, bide luzea dago oraindik urratzeke. Besteak beste, ezinbestekoa da corpusean identifikatutako funtzioak berrikustea eta adibide guztiak xeheki aztertzea, tipologia zehatz bat proposatu aurretik.

Gainera, azterketan gehiago sakondu beharko litzateke, alternantziaren funtzio pragmatikoen eta espontaneotasun- eta formaltasun-mailen artean zer harreman dagoen ikusteko. Modu horretan, posible izango da, agian, aurrekarietan identifikatutako funtzio pragmatikoen presentzia edo absentzia azaltzea. Horrela, gainera, testu-generoen arteko erkaketa ere ahalbidetuko litzateke, eta ikerketa-ildo horri berria zabalduko litzateke euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantziari buruzko lanetan, guk dakigula, mota horretako konparaketarik ez baita egin oraindik.

6. Erreferentziak

- Aldekoa, A. (2020). Hizkuntzen irakaskuntza bateraturantz: ahozko azalpenaren didaktika eleaniztuna derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Doktore-tesia. UPV/EHU.
- Campos, J. (2017). Propuesta de unificación terminológica para las funciones pragmáticas del code-switching. Gradu Amaierako Lana. UPV/EHU.
- Etxabe, A. (2005). *Kode alternantzia lagun arteko gazte-hizkera*. Hiznet Plangintza ikastaroa.
- Etxebarria, M. (2004) Bilingüismo y code-switching en el País Vasco. In *Las lenguas en la Europa Comunitaria II*. Rodopi arg.
- Ezeizabarrena, M.J. & Manterola, J. (2004). La mezcla de códigos (euskera-castellano) en el habla infantil. In *EUROSLA2004*.
- Ezeizabarrena, M.J. & Munarriz, A. (2012). Orden de las palabras en los enunciados mixtos (euskera-castellano) de bilingües típicos y atípicos. In *Actas del XVI Congreso Internacional de la ALFAL*. Servicio de Publicaciones de la Universidad de Alcalá arg.
- Fuentes-Rodríguez, C. & Alcaide-Lara, E.R. (2002). *Mecanismos lingüísticos de la persuasión*. Arco/Libros arg.
- Ibarra, O. (2011). Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart Cuadernos de Lengua y Literatura*, 26, *Terceras jornadas de Lingüística vasco-románica: teoría y análisis*, 277-298.
- Ibarra, O. (2013). El code switching vasco-castellano en oraciones atributivas de hablantes jóvenes (The Basque-Castilian code switching in attributive sentences by young speakers. *Oihenart Cuadernos de Lengua y Literatura*, 28, 115-130.
- Ibarra, O. (2014). Tipología y pragmática del code-switching vasco-castellano en el habla informal de los jóvenes bilingües. *Lapurdum: Euskal Ikerketen Aldizkaria*, 18, 23-40.
- Igartzabal, I. (2014). Kode-aternantzia eta hizkuntza-ohiturak Gabiriako bi belaunalditan. *BAT: Soziolinguitika aldizkaria*, 92-93, 229-251.
- Irabazabalbeitia, I. (2017). Mezuez eta lidergoez. *Hermes*, 57, 96-99.
- Lantto, H. (2015). *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of colloquial Basque*. Doktore-tesia. University of Helsinki.
- Lozano, J. (2006). La administración parlamentaria: una visión comparada a nivel autonómico. In *Organización y funcionamiento de los parlamentos autonómicos*. Tirant lo Blanc arg.
- Manterola, I. & Almgrem, M. (2015). Quelques traits du développement du Basque L2 en contexte de revitalisation de la langue à travers l’immersion scolaire. *Revue Suisse des Sciences de L’éducation*, 37 (1), 24-42.
- Muñoa, I. (1997). Pragmatic Functions of Code-Switching among Basque-Spanish Bilinguals. In *Actas del I Simposio Internacional sobre el Bilingüismo*. Universidad de Vigo arg.
- Perez-Gaztelu, E. (2017). CS metaforikoen eginkizun pragmatiko-diskurtsiboak euskaldun “zahar” gazteen txat mintzaidatzietan. Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa. UEU Baiona.
- Perez-Gaztelu, E. & Zulaika, E. (2014). Gazteak lagrntn idztn: Mintzi-datzien antolamentua. In *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro*. Aduriz, I. & Urizar, R. arg.
- Poplack, S. (1980). Sometimes I’ll start a sentence in Spanish y termino en español: towards a typology of code-switching”. *Linguistics*, 18, 581-618.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2022). Euskarari buruzko iritziak. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_22tef7/es_def/adjuntos/22tef7.pdf
- Uria, L., Alegria I. & Corral, A. (2017). Kode-alternantzia aztertzekeo hizkuntza-teknologiaren ekarpena. *BAT Soziolinguitika Aldizkaria*, 104, 159-178.
- Van Dijk, T.A. & Rodrigo-Mendizábal, I. (1999). *Análisis del discurso social y político*. Abya-Yala arg.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau doktore-tesi baten baitan kokatzen da, eta Eusko Jaurlaritzak ELEBILAB ikerketa talde finkatuari IT1627-22 proiekturako emandako laguntzari esker gauzatu da.